

## **Batzar Orokorra urtea bukatu aurretik egin nahi dugu**

Dakizuen bezala, aurten egitekoa zen bazkideen XXXVI. Batzar Orokorra (maiatzaren bigarren igandean izan ohi da) ezin izan dugu deitu oraindik. Urtea bukatu aurretik egitea dugu helburu, baina berriro ere COVID-19aren pandemiak sortutako egoerak eta horren ondorioz indarrean dagoen Alarma egoerak berriro baldintzatzen gaitu. Gauzak horrela, data berririk ezin izan dugu zehaztu, baina urtea bukatu baino lehen egiteko asmoari eusten diogu oraindik. Batzarra burutzeko formulak aztertzen ari da zuzendaritza, beti ere, segurtasun neurri eta osasun berme guztiak kontuan hartuz.